

Zarauzko Udala

Kultura Departamentua

Zarauzko udalerriko irabazi-asmorik gabeko kultura- edo gizarte-elkarteei 2021eko dirulaguntzak norgehiagoka araubidez emateko deialdia

XEDAPEN HAUEK EZARTZEN DITUZTE OINARRI ARAUTZAILEAK :

- 2021eko otsailaren 25ean osoko bilkurak onartutako 2021eko DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA.
- Zarauzko Udalak dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea (2008ko uztailaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 140 zk.)
- Kultura Departamentuko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak (2021eko martxoaren 25ean osoko bilkurak onartutako kultura departamentuko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoaren aldaketak jaso, hasierako onarpena eman eta urteko oinarri espezifikoak onartzen dituen).

KULTURA-PROGRAMAK ORO HAR EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA 2021. URTEA

1. Helburua
2. Eskaerak
3. Onuradunak
4. Prozedura
5. Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak
6. Gehienezko kontzeptuak eta zenbatekoak
7. Onuradunen betebeharrak
8. Zuzkidura eta aurrekontuko partida
9. Ebazpena: Organo eskudunak eta jakinarazpen-epea.
10. Dirulaguntzaren xedea justifikatzea (*kontabilitateko liburuak eta erregistroak, epeak eta forma, ordainketa aurreratuak...*)
11. Dirulaguntzen abonua eta aurrerakinak
12. Publizitatea
13. Araudia

1. HELBURUA

Oinarri hauen helburua da Zarauzko udalerriko irabazi-asmorik gabeko kultura- edo gizarte-elkarteek dirulaguntzak eskatzeko eta horiek norgehiagoka araubidez emateko prozedura arautzea. Dirulaguntzok kultur jarduerak, programak, trukeko eta senidetzeko jarduerak eta sormen-proiektuak egiteko izango dira, eta beren proiektzio eta interesagatik bat etorriko dira Zarauzko Udaleko **Kultura Departamentuaren** honako programen helburuekin:

- A. KULTUR JARDUERAK ETA PROGRAMAK
- B. KULTUR TRUKEKO ETA SENIDETZEKO JARDUERAK
- C. KULTUR SORMENEN PROIEKTUAK: IKUS ENTZUNEZKOAK, ARTE PLASTIKOAK, MUSIKA, DANTZA...

Espresuki dirulaguntzen emakidatik kanpo utziko dira kultura- edo gizarte-elkarte eskatzaileek zuzenean egiten ez dituzten programak eta jarduerak.

2. ESKAERAK

Dirulaguntza horiek irabazi-asmorik gabeko kultura- edo gizarte-arloko elkarteek eskatu ahal izango dituzte, legearen arabera eratuak eta dagozkien erregistroetan inskribatuak, behar den IFZ dutenak eta beren jarduera nagusiki Zarauzko udalerrian garatzen dutenak.

Inprimakiak (**Kulturako E-01, E-02, E-03 eta E-04 ereduak**) osorik eta ongi beteta aurkeztu beharko dira deialdian ezarritako epean:

Eskaerak Zarauzko Udalaren zerbitzu telematikoen bitartez egin ahal izango dira:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=079&hizkuntza=EU>

Edo, bestela, Udalaren Erregistro Orokorrean (Etkezabala, Kale Nagusia 29), jendaurreko egun eta ordutegian.

Eskaera aurkezteak esan nahi du deialdian jasotako baldintza guztiak onartzen direla.

Eskaera formalizatzeko E-01 eredu-inprimakia beteko da jarduera edo proiektuaren nondik norakoak zehaztuz.

Eskabidearekin batera, oinarri hauen amaieran adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

3. ONURADUNAK

Dirulaguntzen onuradun izateko baldintzak:

Kultur jarduera edo programetarako dirulaguntza horiek **Zarauzko irabazi-asmorik gabeko kultura- edo gizarte-arloko elkarteek** eskatu ahal izango dituzte, legearen arabera eratuak eta dagozkien erregistroetan inskribatuak, behar den IFZ dutenak eta beren jarduera batik bat Zarauzko udalerrian garatzen dutenak.

Salbuespen gisa, Kulturako zinegotziak proposatu eta hala zehazten den kasuetan, Zarauztik kanpoko entitateek ere jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak, hain zuzen ere bere jardueren zati nabarmen bat udalerrriaren barruan garatzen bada edo udalerrriarentzat interesgarri jotzen bada.

KULTURA-SORKUNTZAKO PROIEKTUETARAKO dirulaguntzak gutxienez 31 urte dituzten pertsona fisiko edo juridikoek eskatu ahal izango dituzte. Taldean aurkezten badira, kideen hiru laurdenek bete beharko dute baldintza hori.

Dirulaguntzen onuradunak izateko debekua:

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak ezingo ditu jaso ondorengo zirkunstantziaren batean dagoen erakundeak:

- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, dirulaguntzenak, 13.2 artikuluan zerrendatutako edozein.
- 26/2015 Lege Organikoak, uztailaren 28koak, ezarritakoari jarraikiz, sexu-delituengatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 38. artikulua).

4. PROZEDURA

Dirulaguntzak emateko prozedura Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

5. DIRULAGUNTZARAKO IRIZPIDEAK

Hauek izango dira proiektuen balorazio-irizpideak eta -mugak: kultur jarduera eta programetan, gehienez 100 puntu lortu daitezke, eta gutxienez 50 puntu lortu behar dira proiektuak diruz laguntzeko.

Eta sormen proiektuetan, gehienez 50 puntu, eta gutxienez 25 puntu lortu beharko dituzte dirulaguntza jasotzeko.

A) Kultur jarduerak eta programak

1.- Erakundearen ezaugarriak: 10 puntu gehienez

- a. Elkartearen ibilbide frogatua. Egonkorra eta jarraitua bada, 5 puntu, eta hori betetzen ez bada 0 puntu. Balorazio-irizpidea: elkarrekin 5 urte baino gehiago izatea eta jarduerak modu jarraituan egin izana.
- b. Sarean lan egitea, erakunde eskatzaileak herriko beste eragile, entitate eta erakundeekin harremana edukitzea eta elkarlanean aritzea: puntu 1/elkarlanean egiten duten jarduera bakoitzeko; gehienez 5 puntu.

2.- Proposatutako programa edo jardueraren ezaugarriak: 50 puntu gehienez.

- c. Programa edo jarduera kopurua: 2 puntu / jarduerako; gehienez 10 puntu.
- d. Programa edo jarduera bakoitzaren kalitatea: 10 puntu/handia; 5 puntu/ertaina; 0 puntu / kalitate baxua.
- e. Programak edo jarduerak egiten dion ekarpena kultur arloari: 10 puntu/handia; 5 puntu/ertaina; 0 puntu / ekarpen txikia.
- f. Programak edo jarduerak duen gizarte hedadura. 10 puntu/handia; 5 puntu/ertaina;

0 puntu / hedadura txikia.

- g. Antzeko jarduerarik ez egotea, originala edo berria izatea: 2 puntu / jarduerako; gehienez 10 puntu.

3.- Bideragarritasun ekonomikoa: 20 puntu gehienez

- h. Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa: gastu eta diru-sarreraren aurrekontu zehazta: puntu 1 / 1.000,00 € bakoitzeko; gehienez 10 puntu.
- i. Erakundearen finantza-baliabideak eta eskatutako dirulaguntzaren¹ proportzioa bere baliabide propioekiko: 0,1 puntu lortutako auto-finantzazioaren %1rako; gehienez 10 puntu.

4.- Euskara: 10 puntu gehienez

- j. Euskaraz hutsez gauzatzen eta zabaltzen den jarduera: 1 puntu jarduera bakoitzeko; gehienez 5 puntu.
- k. Jardueran euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartzea: 1 puntu jarduera bakoitzeko; gehienez 5 puntu.

5.- Berdintasuna: 10 puntu gehienez

- l. Diruz laguntzen den proiektuak berariaz emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, eta / edo antolatutako jarduerak genero-ikuspegia edukitzea, kontuan izanda gizonen eta emakumeen egoerak, arazoak, baldintzak eta beharrak desberdinak direla: puntu bat irizpidea betetzen duen jarduera bakoitzeko, gehienez 10 puntu.

C) Sormen proiektuak

Aurkeztutako proiektuak baloratzeko erabiliko diren irizpideak honako hauek izango dira. Gehienez 50 puntu lor daitezke, eta gutxienez 25 lortu behar dira proiektua diruz laguntzeko:

- a. Aurkeztutako proiektuaren interesa, kalitatea: gehienez 15 puntu.
- b. Proiektu berean bi kultur disziplina edo gehiago erabiltzea: gehienez 10 puntu.
- c. Zarauzko kultur arloari ekarpena egitea: gehienez 5 puntu.
- d. Sormen arloan berria izatea: gehienez 5 puntu.
- e. Genero ikuspegia, gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen errealitatea kontuan hartzea: 5 puntu; betetzen ez bada: 0 puntu.
- f. Proiektua euskara hutsean garatzea: 5 puntu; betetzen ez bada: 0 puntu.
- g. Zarautzen erroldatua izatea gutxienez bi urtez: 5 puntu; betetzen ez bada: 0 puntu.

Deialdian kontsignatutako kreditua nahikoa bada ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko, ez da beharrezkoa izango norgehiagoka prozeduraren hurrenkera jartzea.

¹ Eskatutako dirulaguntzaren kopurua zehaztu behar da

6. GEHIENEZKO KONTZEPTUAK ETA ZENBATEKOAK

Deialdi bakoitzean eskaini ahal izango diren gehienezko kontzeptuak eta zenbatekoak ondoren zehaztutakoak dira:

a) KULTURA-PROGRAMAK ORO HAR

Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programaren aurrekontuaren % 75 gaindituko.

b) KULTUR TRUKEKO ETA SENIDETZEKO JARDUERAK

b.1) Trukeak hiri senidetuetako elkarteekin:

Zarauzko elkarteak hiri senidetuak bisitatzeko:

Kontzeptu hauek ondorengo kopuruekin lagunduko dira:

- Hiri senideturaino egindako joan-etorrien gastuen % 50.
- Hiri senidetu egingo diren kultura-jardueretatik -museoetako sarrerek, etab.- sortutako gastuei aurre egiteko kantitate bat. Kantitate hori kultura-jarduera horiek egin direla egiaztatzen duten gastuaren frogagiriak aurkezten direnean onartuko eta ordainduko da.

Hiri senidetuetako elkarteak Zarautz bisitatzeko:

Kultur trukea egiten duen hiri senidetu elkarteak Zarauzko elkarteari sortutako gastuen % 50eraino lagunduko dira diruz, aurrez gastu horiek egiaztatzen dituen gastuaren frogagiriak aurkezten badira eta 300 euroko mugaraino.

b.2) Trukeak senidetu gabeko udalerrietako elkarteekin:

Zarauzko Udalak bere gain hartuko ditu ondorengo kantitateak kontzeptu hauengatik:

- Xedeko udalerrirainoko joan-etorrien gastuen % 50 (900 euroko mugaraino).
- Senidetu gabeko hirian egingo diren kultur jardueretatik – museoetako sarrerek, etab.– sortutako gastuei aurre egiteko kantitate bat. Kantitate hori kultur jarduera horiek egin direla egiaztatzen duten gastu-frogagiriak aurkezten direnean onartuko da.

ESPRESUKI dirulaguntza mota horren EMAKIDATIK KANPO utziko dira ostatu- eta mantenu-gastuak, izan ere, senidetzeen filosofiaren arabera, bidaiatzen duten elkarteko kideek hiri senidetu elkarteko kideen etxeetan hartuko dute ostatu.

c) SORMEN PROIEKTUAK

Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoak ez du programaren aurrekontuaren % 75 gaindituko.

Dirulaguntzen emakida gehienez dagokion partidaren aurrekontuko diru-izendapenaren mugaraino egingo da.

Salbuespen gisa, banku-bermeko gastuak diruz lagundu ahal izango dira, diruz lagundutako jardura modu egokian prestatzeko edo burutzeko ezinbestekoak baldin badira, eta horien onarpena Balioespen Batzordearen iritzira utziko da.

7. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1. Dirulaguntza jasotzen den kultur jarduna burutzea.
2. Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Zarauzko Udalarekikoak egunean dituztela egiaztatu. Betebehar horiek betetzen direla egiaztatu ahal izateko, baimena emango dio Zarauzko Udalarari honek bere aldetik erakunde eskudunei informazioa eskatzeko.

Horretarako, ez da beharrezkoa izango interesdunaren adostasuna, eta administrazioak, bere eskumenak baliatuz, beharrezkoak diren egiaztapenak egin ahal izango ditu datuen zehaztasuna egiaztatzeko eta bere esku dauden edo beste edozein administrazioak egin dituen dokumentuak kontsultatu eta biltzeko.

3. Hizkuntzari buruzko baldintzak

Diruz lagundutako jardura guztietan euskararen erabilera bermatuko da. Jarduerak euskaraz edo ele bitan egingo dira. Mezu idatziak (kartelak, liburuxkak, gonbidapenak, deialdiak, publizitatea...) eta ahozko komunikazioak (aurkezleak, hizlariak, musika, etab.) euskaraz egingo dira gutxienez, eta, ele bitan eginez gero, euskarari emango zaio lehentasuna. Diruz lagundutako jardura euskaraz egiten bada, euskaraz idatzi eta jakinaraziko da.

Haur, nerabe eta gazteentzat berariaz antolatutako jardura guztiak euskaraz bakarrik egingo dira. Euskararen erabilera bermatuko da eremu guztietan, hedapenean eta jardueraren garapenean.

Dirulaguntzaren onuradunak hizkuntzaren tratamendua aurreikusiko du hirugarrenekin zerbitzuak kontratatzean, bileretan, hitzaldietan, ekitaldi publikoetan, idatzizko komunikazioetan (informazio-orriak, kartelak, gutunak, oharrak), megafonian, web-orrian, WhatsApp-taldean...

Dirulaguntza justifikatzeko txostena, ahal dela, euskaraz egingo da, hargatik eragotzi gabe interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubidea.

4. **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera**

ondorengo betebeharrak zehazten dira:

- a) Sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminaziorik ez egitea, kideak aukeratzeko prozesuan ezta lan-jardunean ere.
 - b) Zigor administratibo edo penalik ezarrita eta indarrean ez izatea, sexuagatiko diskriminazioa egin izanagatik.
 - c) Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazioa erabiltzea. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestea; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate antizak erakusten dituzten irudiak sustatzea.
 - d) Dirulaguntza justifikatzeko memorian sexuaren arabera datuak ematea (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).
 - e) Antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izatea.
5. **18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, droga-mendekotasunen** arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoaren arabera ondorengo betebeharrak zehazten dira tabakoaren eta edari alkoholodunen salmenta eta kontsumoari buruz:

Antolatutako jardueretan edari alkoholodunen publizitaterik ez egitea, eta edari alkoholodunak edo tabakorik ez saltzea edo hornitzea 18 urtetik beherakoei.

6. **Ingurumenari buruzko Udal Araudiaren** arabera ondorengo betebeharrak jartzen dira:
- a) Bere jarduera guztietan sortutako hondakinak sailkatzea eta behar bezala kudeatzea.
 - b) Birziklatutako materialez egindako papera, kartoia... erabiltzea, bi aldetatik inprimatutakoak, eta abar.

8. ZUZKIDURA ETA AURREKONTUKO PARTIDA

Dirulaguntzen zuzkidura eta aurrekontuko partidak Kultura Departamentuaren urteko deialdietan ezarriko dira.

9. EBAZPENA

Ebazpena Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo da.

Organo eskudunak

- Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Kultura Departamentuko

arduraduna.

- Azterketa eta balioespena (Balioespen Batzordea): Kide anitzeko organo bat, dirulaguntza ematen duen Departamentuari dagokion informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena (Organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalaren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorritz.

Jakinarazpen-epea

Dirulaguntzen ebazpena jakinarazteko epea Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoa izango da.

10. DIRULAGUNTZAREN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Dirulaguntzaren erabilerearen justifikazioa Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da, eta Kultura Departamentuaren urteko deialdian ezartzen den epean aurkeztu beharko da.

Dirulaguntzaren erabilera hurrengo urteko urtarrilaren 31a baino lehen justifikatuko da. Eta dirulaguntzaren erabilera justifikatzeko ondorengoak aurkeztuko dira:

- Dirulaguntzaren emakidan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzeko **jardueramemoria** bat, burututako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazteko. Memoria horrek gutxienez ondorengo atalak izango ditu:

JARDUERA, PROGRAMA EDO PROIEKTUAREN IZENA

Egindako lan-prozesuaren deskribapena:

a) Burutako jardueren zehaztapena: datak, jarduerak, tokiak...

- Diruz lagundutako jardueren deskribapen zehatza eta edukia.
- Lortutako helburuak
- Genero-ikuspegia txertatzeko hartutako neurrien deskribapen zehatza.
- Partaideen kopurua sexuaren arabera (kopuru absolutuetan edota portzentajetan)
- Emaitzen ebaluazioa
- Beste alderdi batzuk

Dirulaguntzaren balorazio-irizpideak bete direla justifikatzeko jardueramemoria aurkeztuko da.

b) Hala badagokio, **Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Araudiari** dagokionez,

oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.
Hizkuntza ofizialen benetako erabilera justifikatzea, dagokion inprimakiaren bidez.

- c) Hala badagokio, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari** dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.
 - d) Hala badagokio, **Ingurumenari buruzko Udal Araudiari** dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.
 - e) Hala badagokio, **18/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, droga-mendekotasunen** arloko aurrezaintza, laguntza eta gizarteratzeari buruzkoari dagokionez, oinarri hauetan derrigorrez ezarritakoari erantsitako neurri osagarriak zehaztea.
 - f) Diruz lagundutako jarduera egiteko erabilitako material grafikoak eta idatziak: programak, kartelak, iragarkiak, publizitatea...
- **Memoria ekonomiko** bat, egindako jardueren kostua justifikatzeko; hauek bilduko ditu:
 - a) Jardueraren gastuen eta inbertsioen ordainketaren **erantzukizunpeko adierazpen bat**, honakoak adierazita: pertsona edo erakunde hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data, eta, hala badagokio, ordainketa-data. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak ere adieraziko dira (**erabili E-05 inprimaki-eredua**).
 - b) Aurreko paragrafoan aipatutako zerrendako gastuen frogagiriak, edo pareko frogabalioa edo administrazio-eraginkortasuna duten dokumentuak.
 - c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo dirulaguntza guztien **erantzukizunpeko adierazpena**, elkartearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita (**erabili E-05 inprimaki-eredua**).

Hala badagokio, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, diru-itzuleraren eta horietatik sortutako interesen ordainketa-gutuna.

Gastuen frogagiriak dituen justifikazio-kontua erabiliz gero, aldeztatik ezarri ahalko da justifikaziorik behar izango ez duen goren muga (portzentajea) edota kopurua. Goren muga edota kopuru zehatza, bere kasuan, Kultura Departamentuaren urteko deialdian ezarriko da.

- 3. Oinarri hauetan zehazten diren **Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Araudian** ezarritako betebeharrak bete direla zehazten duen zinpeko aitortpena. Horretarako E-06 inprimaki-eredua bete behar da.

11. DIRULAGUNTZEN ABONUA ETA AURRERAKINAK

Dirulaguntzen abonua Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean ezarritakoari jarraiki egingo da.

Ordainketa aurreratua egin ahal izango dira justifikazioaren aurretiko fondo-entrega moduan, dirulaguntzei atxikitako jarduerak burutzeko nahitaezko finantzaketa gisa, aurrez behar bezala justifikatutako eskaera eginda. Nolanahi ere, azken zatiaren abonua egindako gastuaren justifikaziora baldintzatuta geratuko da.

12. PUBLIZITATEA

Dirulaguntzen onuradunak diruz laguntzeko den edozein programaren, jardueraren, inbertsioren edo jardunen izaera publikoari buruzko publizitatea egin beharko du, euskaraz edo bi hizkuntzetan. Bi hizkuntzetan eginez gero, beti ere euskarari lehentasuna emanda.

Publizitate horretan Zarauzko Udaleko Kultura Departamentuaren erakunde-irudia txertatu beharko da derrigorrez, eta baita finantzaketa publikoari buruzko hitzak ere txartel, plaka oroigarri, material inprimatu, euskarri elektronikoa edo ikus-entzunezko, edo komunikabideetan egindako aipamenetan.

Onuradunek, gainera, jasotako dirulaguntzen eta laguntzen berri eman beharko dute, zenbatekoa eta helburua edo xedea adierazita, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean jarritako moduan eta baldintzetan, honako kasu hauetan:

- Erakunde pribatuak urtebeteko epean 100.000 eurotik gorako laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzen dituztenean, edo urteko diru-sarrera guztien % 40 gutxienez laguntza edo dirulaguntza publikokoak direnean, baldin eta gutxienez 5.000 eurora iristen badira.
- Interes sozial edo kulturaleko helburuak besterik ez dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak badira, eta 50.000 eurotik beherako aurrekontua badute, jasotako laguntza edo dirulaguntza publiko gehien den administrazio publikoak haien esku jarritako bitarteko elektronikoak erabili ahal izango dira lege honetatik eratorritako betebeharrak betetzeko.

13. ARAUDIA

Oinarri berezi hauetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko BOE); eta Zarauzko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea.

Dirulaguntzaren eskaerari (E-01 ereduari) erantsi beharreko dokumentazioa

Honako dokumentuak aurkeztu beharko dira (aurkezten diren dokumentuak X batekin markatu):

- Elkartearen arduradunaren edo bere ordezkorearen NAN (fotokopia).
- Elkartearen IFZ (fotokopia).
- Egitasmoaren jatorrizkoa.
- Gastu eta sarreraren aurrekontua eta beste dirulaguntza-eskaera batzuei buruzko adierazpena.
- Hizkuntza ofizialen erabileraren aurreikuspenaren dokumentua (**E-02 eredua**)
- Zinpeko aitortpena (**E-03 eredua**)
- Behar izanez gero, dokumentazio osagarria.

Dirulaguntza jasotzearekin batera hartzen diren konpromisoak

- Programatik eratorritako erantzukizunak bere gain hartzea.
- Behar diren baimenak lortzea.
- Egitasmoa garatzen ari dela gertatzen diren gorabehera guztiak Udalari jakinaraztea, gertatu bezain laster.
- Dirua gastatzen ez bada, dirulaguntza itzultzea.
- Helburuak funtsean aldatuz gero, dirulaguntza itzultzea.
- Udalak ezarritako betekizun guztiei eta bete beharreko arauari men egitea.

**Erantsi beharreko dokumentazioa
(dirulaguntza JUSTIFIKATZEKO garaian)**

Honako dokumentuak aurkeztu beharko dira (aurkezten diren dokumentuak X jar ezazu):

- Egindako jardueren memoria.
- Memoria ekonomikoa: gastu eta diru-sarreraren eta jasotako beste dirulaguntzen zerrenda sailkatua (**E-04 eredua**) eta gastuen agiri originalak.
- Hizkuntza ofizialen benetako erabileraren dokumentua (**E-05 eredua**)
- Behar izanez gero, dokumentazio osagarria.